

2019/2020KO KIROL IKASTAROAK

Ikastaroetan izena emateko AURRETIKO HITZORDU sistema

Zer da aurretiko hitzordua? Ikastaroetan izena eman ahal izateko data eta ordua izatea.

Nork eska dezake?: Bilbao Kirolak-eko abonatuak (BK) eta Azkuna Zentroko abonatuak (AZ)

Zenbat aurretiko hitzordu eska daitezke? Bat pertsonako eta kiroldegiko.

(Nahi beste kiroldegi aukeratu daitezke)

Kiroldegi bakoitzean, gehienez ere 3 ikastaro aukeratu daitezke.

Aukeraketak ez du derrigortzen gero ikastaro horietan izena ematera.

Aurretiko hitzorduak EZ du esan nahi: - ikastaro batean plaza bat erreserbatuta duzunik.

- ikastaroan izena derrigorrez eman behar duzunik.

- Bilbao Kirolak erakundeak konpromisoa duenik aukeratutako ikastaroetarako eskaera guztiak aintzat hartzeko.

AURRETIKO HITZORDUA NOLA ESKATU

Noiz? Maiatzaren 14etik (09:00etatik aurrera) irailaren 6ra arte (24:00ak arte)

Non eta nola? Kiroldegietan (Salmenta-puntuko terminalean) edo Internet bidez

Salmenta-puntuko terminalean	www.bilbaokirolak.eus
<ol style="list-style-type: none">1. Menua / Aurretiko hitzordua atalean sartu2. Abonatu txartela txartel-irakurgailutik pasatu3. "Zozketan izena eman" aukeratu4. Kiroldegia aukeratu5. Ikastaroak aukeratu (gehienez ere 3 kiroldegiko)6. Zozketarako zenbakia duen tiketa batu	<ol style="list-style-type: none">1. On-line zerbitzuen atalean sartu2. Abonatuaren identifikazio-zenbakia sartu3. "Aurretiko hitzordua eskatu" aukeratu4. Erabiltzailea aukeratu.5. Tiketa inprimatu (aukerakoa) <p>Behin zozketan izena emanda, tiketa berriro inprimatu daiteke.</p>

ZOZKETA

Noiz? Irailaren 10ean

Non? Bilbao Kirolak erakundearen bulego nagusietan

Nola? -Zozketa bat egingo da kiroldegi bakoitzerako.

-Zerbaki bat aterako da, eta 1. hitzordua emango zaio.

-Zerbaki horretatik aurrera, hitzorduak zerrendako ordenari jarraituz emango dira.

-Zozketak familia-unitate bateko kideen hitzorduak banatzen baditu, denek hitzorduak jarraian izatea errespetatuko da.

ZOZKETAREN EMAITZAK

Noiz? Irailaren 11n (09:00etan)

Non? -**Kiroldegietan:** ikusgai jarritako zerrendetan edo salmenta-puntuako terminalean

-**Internet bidez:** www.bilbaokirolak.eus (on-line zerbitzuen atalean)

Nola aurkez dezaket erreklamazio bat?- Irailaren 12ko 22:00ak baino lehen.

Idazki bat aurkeztuz posta elektronikoz edo Bilbao Kirolak-en, zuzenean.

- Bilbao Kirolak-ek erreklamazioak aztertuko ditu, eta irtenbide bat aurkituko die irailaren 13a baino lehen (15:00).

IZEN-EMATEAK

Noiz?

- **Aurretiko hitzordua duten abonatuak:** irailaren 17tik aurrera (08:30etik hasita), esleitu zaien hitzorduan ageri den egunetik eta ordutik aurrera.
- **Aurretiko hitzordurik ez duten abonatuak:** irailaren 24tik aurrera.
- **Abonatuak ez direnak:** irailaren 26tik aurrera.

Non eta nola?

- **Kiroldegietan:** salmenta-puntuako terminalean
- **Internet bidez:** www.bilbaokirolak.eus

GARRANTZITSUA. Urrian ikastaro bat egiteko alta emanez gero, ezin izango duzu hurrengo hilabetera arte (azaroa) baja eman.